


Garaizarko Matsorriak abesbatzak diskoa argitaratu du, 25 urte beteiko dituela ospatzeko

ERP2
ERREPORTAJEA

Testua: Dabi Piedra



36 ahots grabek osatzen dute korua, denak gizonetzkoak. Gaur egun ere, izenari ez ezik izenari ere eusten diote eta gehienek Mahatserriarekin lotura estua daukate, “bazkide gehienok Begoña edo Santutxu ingurukoak gara”, zehaztu diote BERTON aldizkariari abesbatzako kideek, Bilboko beste auzoetatik ere jendea etortzen den arren. “Musikazalaleak eta gautxoriak, gehienbat jubilatuek baina baita gazteak ere”, horrela ikusten dute euren burua 36 kantariak. Euskal konpositoreen kantak abes-

ten dituzte gehienbat, estilo anitzetan. “Kalean eta tabernetan sortzen den kantu giroak erakartzen gaitu”, diote kideek.

1987an sortu eta berehala abesbatzaren izena ahoz aho hedatu zen gure auzoetan: “Garaizarko auzokideak izanik, batzuk berehala hurbildu zitzaizkigun eta lagunak eta ezagunak bidez taldea handitzen joan gara”, gogoratu dute taldekideek. Euretako batzuk hasiera-hasierratik daude koruan, mende laurdena daramate mahatsorriaren izena kantuz zabaltzen.

Astean birritan batzen dira Garaizarko Matsorriak entseguak egiteko, Birjinetxe ikastetxe publikoko areto “handi eta eroso batean”, euren esanetan. Bestetik, Santa Monika komentua da errezitaldiak eskaintzeko lekurik gogokoena, “etxean bezala kantatzen dugu han”, zehaztu diote BERTONi.

Kalea ere esparru naturalizat dute eta horregatik, kalerik kale abesteko ez dute aukerarik galtzen, San Tomas azokako giroan, Agate Deunaren bezperan, Begoñako San Isidro egunean zein Begoñako Amaren omenezko ospakizunetan egoten dira beti. Bestelako ekitaldietan ere, Garaizarko Matsorriak kantuan ibiltzen dira, euren pasioa hori da eta: “Begoñako Abesbatzen Astean, Txorierriko gabon kanten jaialdian, Bilboko Udalaren gabonetako ekitaldietan eta Bizkaiko



1987an hasi zuen ibilbidea koruak, hau da, mende laurdena betetzear dago eta, hasiera-hasieratik, Begoñako errepublika zaharrarekin, Mahatserriarekin, daukan lotura argi eta garbi erakutsi nahi izan du. Hortik datorkio izena, Garaizar Txurdinaga auzoko ingurua baita (Garaizar baserria egon zelako han) eta koruki-deek euren burua hain begoñar ikusita, Garaizarko Matsorriak izena hautatu zuten. Euren errepertorioko 16 abestirekin, diskoa kaleratu dute, 25. urtemuga ospatzeko modurik politena izango delakoan.



Abesbatzen Elkarteak antolatzen dituen hitzorduetan (udaberriko zikloak, Bizkaiko abesbatzen eguna eta abar) ibiltzen gara". Bizkaiko ia eliza guztietan abestu dutela ere ziurtatu dute.

Miren Zubieta da gaur egun Garaizarko Matsorriak abesbatzako zuzendaria. "Hiru urte daramatza gurekin Mirenek eta berarekin ederto konpontzen gara, lehendik ere bikaina zen giroak harekin hobera egin duela esan liteke", azaldu digute abesbatzako kideek. Beraz, 36 gizonetako emakume baten aginduetara daude une honetan Garaizarko Matsorriak koruan, eta gustura gainera.



Diskoa kalean

25. urteurrenako diskoa grabatzeko, Iker Herreroen laguntza tekniko ere izan dute. Santa Monika komentuan eta Lezamako elizan egin dituzte grabaketa saioak eta abesti batzuetan Leioako kontserbatorioko txistulariek lagundu diete.

la mende laurdeneko ibilbidean, lehenengo lana argitaratu dute Garaizarko Matsorriek, orain arte zuzenean gozatzekoa zena, CDan batzea erabaki dute: "Une honetara arte ez dugu diskoa

Agapi
Dekorazioa eta eskaiola
 Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
 Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
 Tfnoa: 944336916 - Sakolekoa: 651709114
 SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko *Iturriaga 96.*
 herriko taberna
 Gosari bereziak:

 Euskal Herria
 AURRERA!

BI-96.0-FM
 Bilbo Hiria irratia
 www.bilbohiria.com

DEGUSTACION
Garaizar

 JESUS GAINDEZ Nº 10
 TEL: 94 4200220 - GARAIZAR - BILBO



grabatzeko beharrik sentitu baina 25. urteurrena hain hurbil egonda, zerbait berezia eduki nahi izan dugu, aurkezpen gisa ere baliagarria izango zaigu". Garaizarko Matsorriak koruaren ibilbideko abesti kuttunak aukeratu eta 16 kantaz osatutako bilduma osatu dute lehenengo CD horretan, gehienak *a capella* interpretatuta.

Iragan oparoa dauka Garaizarko Matsorriak abesbatzak, mende laurdena betetzera iristea ez baita erraza. Etor-



kizunari buruz ere, baikor daude taldekideak. Badakite euretako asko adinean gora doazela eta, gaur egun, ez dela hain erraza gazteen artean abesteko afizioa sustatzea. Hala ere, "gure herria beti izan da kantuzalea, erreleboa bermatuta dagoela uste dugu", horixe adierazi dute. Hori bai, abesbatzan gazte gehiago ikustea gustatuko litzaiekela ere gaineratu dute.